



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZOKO ZAHAR ETXEKO TABERNA (ANTONIO PILDAIN, 3) USTIATZEKO ETA LOKALAREN ATEZAINZA ETA GARBIKETA LANAK KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1. ARTIKULUA.

Lezoko Unibertsitateko Udalak Antonio Pildain kaleko 3. sotoan duen Zahar Etxeko taberna ustiatzeko eta Zahar Etxearen atezaintza eta garbiketa lanak kontratatzeko lehiaketa publikoan parte hartzeko deia egin du.

2. ARTIKULUA

BI URTEKO epea izango du kontratuak behin betiko esleipena ematen denetik aurrera kontatzen hasita.

Badago kontratua luzatzeko aukera ere, baina lau urte baino gehiago ez. Dena dela, bi alderdiek dute errenuntzia aurkezteko eskubidea, hiru hilabete aurretik adieraziz gero, betiere.

3. ARTIKULUA

Kontratu hau gauzatzeko Lezoko Udalak ez du finantziatorik eskatzen.

4. ARTIKULUA

Hizkuntza ofizialei dagokionean ondorengo betebeharrak zehazten dira:

Hizkuntza Gaitasuna


Hizkuntza gaitasunei dagokienez, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute, bai esleipendunak, baita publikoarekin lanean arituko den edozein langilek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).



Lezoko Unibertsitateko Udala

Hizkuntza Paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazioak elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Erabilera herritarrekin:


Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Erabilera Administrazioarekin:

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da euskaraz.





Lezoko Unibertsitateko Udala

5. ARTIKULUA

Kontratazio jardunbide honetan parte hartu ahal izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

- Adinez nagusia izatea.
- SKPLTBaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez izatea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izatea EAEko hizkuntza ofizialei dagokionean.
- Elikagaien manipulaziale ziurtagiria izatea.
- Kamarero eta sukaldari aritu izana urtebetez.
- Ondorengo egoera sozio-familiar baten aurrean beharko du egon:
 - Epe luzeko langabetua izatea.
 - Bere kargupean adin txikikoak izatea.
 - Mendeko pertsonak izatea bere kargu.
 - Oinarrizko errenta (Renta de Garantía de Ingresos) onuradun izatea.

6. ARTIKULUA

Kontratastak, derrigorrez, ondorengo zerbitzuak beteko ditu:

-Kafetegi zerbitzua (edari hotzak eta beroak), eta sukaldea, beti ere osasunari dagozkion araudiak beteaz.

-Zerbitzuaren ematea egokia izatea.

-Tabernaren eta Zahar Etxearen alboko beste aretoen garbiketaz arduratzea baldintza ezin hobeagotan edukitzeko.

7. ARTIKULUA


Kontratastak berak bete beharko ditu zuzenean kontratu honetan aipatzen diren eginkizunak, eta zilegi bada ere beste pertsonak laguntzea, ez dute horregatik Udalarekiko eskubide edo loturarik irabaziko. Horrelakoetan gainera, laguntza hori ematen duten pertsonen izenak adierazi beharko zaizkio Udalari.

8. ARTIKULUA

Kontratastak ezin izango dio hirugarren bati kontratua transferitu Udalaren baimenik gabe.

9. ARTIKULUA





Lezoko Unibertsitateko Udala

Esleipendunak erantzun beharko du bere jardueraren ondorioz pertsona edo gauzetan (baita Udalarenak edo haren menpekoak direnetan ere) gerta daitezkeen kalte guztiengatik.

Bete behar hori bermatzeko, berriz, erantzun zibilari aurre egiteko 300.000 €tako poliza egin beharko du behar besteko arriskua eta diru-kaltea tapatzeko adinakoa, zerbitzuaren ematearen ondorioz hirugarrenei sortu lekizkioken kalte-ordainak ordaindu ahal izateko.

10. ARTIKULUA

Kontratatik berak eman beharko du izena eta ordaindu Jarduera Ekonomikoetako Lizentzian alta ematea, eta Segurtasun Sozialarekiko afiliazio eta kotizazioa, azken hau langile autonomoen erregimen berezian. Tabernako jarduera gauza dadin beharrezkoak diren bi baldintza horiezaz gainera, emakidadunaren esku daude berari dagozkion Aurreikuspen edo Aseguru polizaren gastu guztiak.

11. ARTIKULUA

Kontratatik ondorengo betebeharrak izango ditu:

-Taberna publikoarentzat urte osoan irekita edukitzea, eta Erretiratuen elkarteko zerbitzu guztiak emateko moduan. Taberna itxita egongo da oporretako hilabetean (abuztua) eta astelehenetan asteko deskantsu egun moduan.

-Udalak ezarritako jendaurreko ordutegia betetzea, 9:00- 21:30 arte. Egun berezietan, hala nola jaiak, gabonak edo elkarte berak antolatutako jaialdietan...e.a. ordutegiaren aldaketa puntualak egin daitezke 24:00 ordu arte. Beti ere aldaketa puntual hauek elkarrearen zuzendaritza batzordeari eta Udalari jakinarazi beharko zaizkie aurrez.

-Atezain lanen barrukoak ditu kontratatik lokaletarako sarrera kontrolatzea, bertako segurtasuna, lokalak ireki eta ixtea, sartzeko giltzak jaso eta zaintzea, eta Zahar Etxearen ordenua eta elkarbizitza egokia izan dadin arduratzea.


Lezoko Jubilatuen Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak ere izango du lokaleko giltza.

-Instalazio eta lokal guztiaren garbiketa kontratistari dagokio. Egunero garbitu beharko ditu lokal eta instalazioak, behar den bezalako ganoraz. Lokal eta instalazio guztietako garbiketa egunero egin beharko da. Hilabetean behin taberna, sukalde, almazen eta bainuen (tabernakoak eta beste aldean daudenak ere) garbiketa sakona egin beharko da. Hilabetean behin ere taberna nahiz Zahar Etxe guztiko, mobiliario, bestelako tresneria eta kristalen garbiketa egin beharko da.

Garbiketa tresna eta produktuak kontratistaren kontura izango dira.

12. ARTIKULUA





Lezoko Unibertsitateko Udala

Opor garaian Aiton Borda elkarteko aretoaren garbiketa lanak Udalak egingo ditu.

13. ARTIKULUA

Kontratu hau hasten denerako Lezoko Unibertsitateko Udalak jarriak dauzka Zahar Etxeko taberna eta gainerako instalazioen funtzionamendurako behar diren lanabes eta tresnak. Aipatu tresneria tabernaren ustiaketarako eta erabilerarako soilik erabiliko da, eta espresuki debekatua dago probetxu pribatua duten erabilerak.

Zerbitzu prestazioaren hasieran udalak utzitako materialaren zerrendarekin inbentario bat egingo da. Inbentario hori kontratistari emango zaio behin betirako esleipena egiten denean eta behar den akta eginik. Tabernako zerbitzuari dagokion material berria erostea edo puskatzen dena konpontzea esleipendunaren kontura izango da, kontatuak irauten duen denbora guztian zehar.

14. ARTIKULUA

Sukaldeko aparailu, kafegailu eta frigorifikoaren mantentze eta konponketa Udalaren kontura izango dira, kontratistak gaizki erabili edo haren utzikeriagatik hondatu ez badira behintzat.

15. ARTIKULUA

Kontratistak ezin izango du inongo lanik egin, ezta konponketa soilak ere, udalaren berariazko eta idatzizko baimenik gabe.

Halaber, ez du inolako merkatal edo politika izaerako txartel, letrero edo iragarkirik jartzerik izango, eta debekatuta dago bereziki makina txanponjale edo jokokoak jartzea.


Kontratistak 18 urtez beherakoei edari alkoholdunak eta tabakoa saltzeko debekua errespetatu beharko du. Tabernan, ondo ikusteko moduko lekuan, debeku horren adierazgarri den txartel bat jarri beharko du.

16. ARTIKULUA

Edonor balia daiteke tabernako barra zerbitzuaz Zahar Etxeko funtzionamenduko Arauen arabera, baina jubilatuta eta horien lagunek beste inork ezin izango ditu erabili Zahar Etxearen gainerako zerbitzu eta gelak (mahaiak, telebista, aulkiak, liburutegia, e.a.).

Kontratistak tabernako erabileran lehentasuna emango dio eta errespetatuko ditu Aiton Borda jubilatuta elkarteak antolatutako ekintza eta aktibitateei.





Lezoko Unibertsitateko Udala

17. ARTIKULUA

Kontsumizioen prezioak ez dira inola ere Udalak onartutakoak baino garestiagoak izango. Hala, bi prezio zerrenda ezarriko dira: jubilatuentzako bat eta gainerako guztientzako beste, eta prezio horien zerrendak bistan ipinita egongo dira Aiton Bordan bertan.

Establezimendu publikoetarako emango diren osasun-elikadura gaietako arau eta xedapen guztiak bete beharko ditu kontratistak.

18. ARTIKULUA

Kontratuaren arduradunak gaixotasunagatik edo istripuagatik, baimenengatik... baja izanez gero, kontratistak ordezkotik izendatu beharko ditu, zerbitzua eten ez dadin eta kontratuan jasotakoaren baitan modu egokian bete dadin. Aldez aurretik egin beharreko ordezkapenen berri udaletxeari eman beharko zaio, honek egoki ikusiz gero, kontratistaren proposamena onartu edo uko egin ahal izan dezan.

19. ARTIKULUA

Lezoko Unibertsitateko Udalak ez dio kontratistari diru-ekarpenik emango Aiton Borda elkarteko aretoaren garbiketa eta atezaintza lanengatik.

Kontratistak, ordainetan, zerbitzuaren ustia ketagatik lortzen dituen diru sarrerak jasoko ditu.

Udalak eraikineko argia, ura-estolderia, zaborra eta gasaren gastuak hartuko ditu bere gain.


20. ARTIKULUA

Lezoko Unibertsitateko Udalak, begiratu edo kontrola ditzake lokalaren funtzionamendua, barruko ordenua, ixteko eta irekitzeko orduak, eta taberna, sukalde eta beste lokal eta zerbitzuetako garbitasun eta osasun baldintzak. Horrela, bada, Zahar Etxeko leku eta instalazio guztietara sar daiteke Lezoko Udala.

Inolako akatsik ikusiz gero, behar den akta egingo da eta ohartarazpen idatzia sortuko du honek lehendabiziko aldian; bigarrenen ordea, kontratua etenaraziko da eta batere eskubiderik gabe alde egin beharko du emakidadunak lokaletik, bertako tresna guztiak Alkatetzaren esku utzirik, errekerimendua egin ondoko hiru egunen barruan.

Baldin lokaletik alde egingo ez balu, sor dakioken erantzukizun penalaz gain,





Lezoko Unibertsitateko Udala

Udalak dituen edozein organoren bitartez behar diren neurri bortxatzaile eta premiatzaileak erabili ahal izango dira bertatik joan dadin.

21. ARTIKULUA

Lezoko Unibertsitateko Udalak aseguratu beharko ditu lokala eta bertako instalazio nahiz altzariak, egoki jotako kantitateetan.

22. ARTIKULUA

Udalak, Gizarte Zerbitzuak sailaren bitartez, gerta litezken arau-hausteak direla eta, egoki deritzon zuzenketak inposa diezazkioke kontratistari.

23. ARTIKULUA

Kontratuaren epealdia bukatzen denean desegingo da kontratua ere, eta kontratistak lokala eta bertako ondasun guztiak laga eta libre eta hutsik utzi beharko ditu Udalaren eskutan, Udalak baduela, berez eta besterik gabe, berriz abiatzea erabaki eta exekutatzeko ahalmena aitortuz.

Era berean, Zahar Etxeko tabernaren ustiapenaren emakida-kontratua eteteko arrazoi izan daitezke ondorengoak:


1. Kontratistak bere oinarrizko betebeharretan arau-hauste larria egiteagatik udal erabaki bidez. Beti ere, aurretik, ohartarazpen fede-emailea bidaliko zaio jakinaraziz hutsegite zehatzen berri eta zentzuzko epe bat berriaz emanaz, hutsegite horien izaerarekin bat etorriko dena. Aurrekoak egin eta ezarritako epean hutsegiteak konpontzeak eragin dezake aipatu erabakia.
2. Udalari zerbitzua lehengoratzea, kontratuan ezarritako epea ez betetzeagatik.
3. Udalak zerbitzua erreskatatzea, aurretik ezarritako prozedura bidez beharra justifikatzen bada.
4. Porrot edo ordainketa-etendura aitopenagatik edo kudeatzen duen pertsona juridikoaren iraungitzeagatik.
5. Legea jasotako beste edozeinengatik.

24. ARTIKULUA

Gaitasuna eman zaio Lezoko Udalari kontratua salatu, indarrrik gabe utzi eta behin betirako fidantza galarazteko, kontratuaren Plegu edo Proposamen honetan ezarri diren baldintzetakoren bat beteko ez balitz.

Noiznahi galda dezake, halaber, kontratuaren ondorioz ekonomikoki hartu diren obligazioen ordainketetan eguneratuta egotea, zor zaizkionak kobratzeari ekin diezaiokeelarik premiamendu bidez, dagozkion gainkargu eta guzti, aurreko paragrafoan zehaztutakoaren kalterik gabe.





Lezoko Unibertsitateko Udala

25. ARTIKULUA

Baldintza Plegu hau zertzerakoan sor litezkeen zalantza guztiak Lezoko Udalak argituko ditu. Plegu honetan aurreikusten ez diren egoeretan, berriz, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuko xedapenek eta kontratuari dagozkion gainontzekoek aginduko dute.

Lezon, 2013-06-21

Ainhoa Zabalo Loiarte, alkatesa

